

Maule-Lextarre

Aurkibidea

Udalerria: Maule-Lextarre

Sarrera



Maule-Lextarre Zuberoako hiriburua da, 1841ean Maule eta Lextarre herriek bat egin zutenean sortua. Maule, gaztelu-gotorleku bat zuen muino baten magalean garatu zen. Hasiera batean, Akitaniako bizkonderriaren menpe egon zen, eta Maule izenaz 1050-1070. urteen bitartean sortu zen.

- **Biztanleak:** 3.217
- **Euskaldunak:** %57,41

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**

- Pasarteak: **1**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Michel Arricar (1883)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 30 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Maule-Lextarreko kapilaua zen. Montevideon (Uruguay) 1883. urtean jaioa. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.198

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Hiru istorio

- **Hizlaria(k)**: Arricar, Michel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: MAU-001/001
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:47
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Hiru istorio ezberdin entzun daitezke pasarte honetan. 1- Trenean doazen bi emakumeri buruzkoa. 2- Gaizkile bat epaile aurrera eramán zutenekoa. 3- Eztabaidan dabiltzan senar-emazte batzuk.

Transkripzioa

Ixtoiak.

Lehena. Bürdün bidian entzunik, behinere algar ezagütü etzien bi emazten artian: "Badüzia haurrik, madama?". "Bai, badit seme bat". "A, seme bat? Pipatzen dia?". "Ez, eztizü egündano zigarreta bat hunki". "Hobe segür tabakak gaitz egiten digü. Eta, badueia ostatilat?". "Eztizu behinere zankoik holako etxetan sarthü". "Hobe segür ezdütützü oro halako. "Erretiro huna dia? ala berant ützültzen zaizie etxeat?". "Ai hal eta berehala baduazü oherat!" A, arren zure semiak kundüta huna dizü. Zer adin dü?". "Bi hilabete, madama".

Etzien erri güti egin behazalek.

Bigerrena.

Gizon gazte bat tribunaliala eramánik da. Juje qehienak aitzinian ezarten deitzo egin dütian uhünkeriak eta gaizkiak oro eta erraiten deio azkenian: "Horra zertaratü zutian lagün gaistuekin ibiltiak...". "Lagün gaistuekin diozia Jauna? Enüzü ihuekin hain üsü agitü nola jaun jujiekin".

Hiugerrena.

Senhar emaztiak ari dira aharran... Senharrak emaztiari: "Ori Kattina, merexi zünükian khüso bat senhartako". Kattinak arrunt: "Hortakoz ere zurekin ezkontü nüzü".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com